

'BAT-ETORRI CONSENSO'REN JARRERA TOLEDOKO ITUNAREN GOMENDIOEN INGURUAN

Azken akordioa lortu zenetik 10 urte igaro direnean, Toledoko Itunaren Batzordeak akordio zabala lortu du (aldeko 30 boto; Voxeko 5 kontra; eta 2 abstentzio, Bildu eta ERCrenak). Akordio horretan, pentsio publikoen erreformak egiteko jarraitu beharreko gomendio berriak ezarri dira; bai egungo gobernuarentzat eta bai etorriko direnentzat ere oinarri izango direnak.

Toledoko Itunaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea Diputatuen Kongresuko Batzorde Iraunkorra eta **ez-legegilea** da, eta osoko bilkurak onartu behar ditu haren proposamenak. **Prozesu hori gaur, azaroak 19, amaitu da, akordio politiko zabalarekin; izan ere, Diputatuen Kongresuko osoko bilkuraren gehiengoaren babesa jaso du, kontrako 2 boto baino ez, parlamentua inoiz baino zatikatuagoa dagoen unean.**

Toledoko Ituna perspektibaz aztertu behar dugu, garatzen den testuingurua kontuan hartuta. Horretarako, gogoan izan behar dugu pandemia baino lehen, 2019. urtearen amaieran, lau urteko eztabaiden ondoren, Toledoko Itunaren Batzordean egindako lanek porrot eginda gelditu zirela, akordiorik gabe amaitu baitzen. Orain, indar politiko berberak protagonista direla, akordioa lortu da; inolako zalantzarik gabe, pandemiaren eraginez bizi dugun muturreko egoerak badu zerikusirik.

Alderdi politikoek pentsioen eredu publikoaren inguruan dituzten proposamen ezberdinen eta hain urrunden arteko akordioa izanik, Toledoko Ituna **abiapuntua da, eta ez helmuga**. Gutxieneko akordioa ere bada; eta, orain, adostutakoa garatzeko unea da, Diputatuen Kongresuan garatu beharko dute, Estatuko Aurrekontu Orokorren bidez eta itunaren erreforma arautuko dituzten legeen bidez.

Horregatik guztiagatik, ezin zitekeen bestela, **Itunak argi-ilunak** ditu. Alde positiboen artean, bereziki azpimarratzekoa da, 2020ko gomendioek Estatuko bi alderdi nagusien babesa berreskuratu dutela, historikoki Espainiako gobernuak egituratu dituzten alderdiena –PSOE eta PP–; eta horiekin batera, estatu mailako bi alderdi berrien babesa ere jaso dutela –UNIDAS-PODEMOS eta CIUDADANOS–, azken urteetako errealitate politiko berrien adierazle gisa, 2008tik bizi dugun krisi politikoaren, ekonomikoaren, instituzionalaren harira sortuak.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu, zehaztutako gomendioen artean, beste behien ere, banaketa-sistemaren ordez beste kapitalizazio-sistema bat erabiltzea baztertu dela, eta sistemaren printzipioak berretsi direla: **unibertsaltasuna, batasuna, elkartasuna, berdintasuna eta nahikotasuna**. Batzordeak berriaz baietsi du 2013an onartutako IRPk (% 0,25) «behar adinako adostasun politiko eta sozialik ez duela», eta **pentsiodunen erosteko ahalmena mantentzea defendatu du, pentsioak KPI errearen arabera urtero birbaloratuz, eta, hori legez bermatuz**. «Pentsioen itsulapikoa» berreskuratzearen aldeko apustua egin du; pentsiorik baxuenak hobetzea proposatu du; **nekazaritzako eta etxeko langileen erregimenak Erregimen Orokorren baitan sartzearen** inguruan sakondu du; Langile Autonomoen Erregimen Bereziko eskubideak eta betebeharrak Erregimen Orokorrekin parekatzeko bideak jarri ditu; **55 urtetik gorako enplegurako** pizgarriak ezarri ditu; erretiroaren oinarri arautzailea kalkulatzeko urte kopurua ez da handitu (25 urte 2022tik aurrera) eta zenbatekoak hobetu ditu **onuradunen kotizazio-urterik onenak aukeratzeko askatasuna** ematerakoan; kontuak onbidetzearen aldeko apustua egin du Estatuaren maileguak zorrik sortzen ez duten ekarpenekin ordezkatzerakoan eta ez dagokion gastuak kentzerakoan, izan ere, Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik finantzatu dira; halaber, kontuen **finantzaketa iraunkor eta jasangarriaren** aldeko apustua egin du.

Alde negatiboet dagokienez, gomendioetan ez da **Konstituzioaren blindatzea** aipatzen; ez da **iraunkortasun-faktoreari** buruzko aipamenik egiten; gehieneko kotizazio-oinarrien inguruan aipamen bakarra dago, lauso samarra, eta aipu horretan jasotzen dena da: gehieneko kotizazio-oinarrien eta gehieneko pentsioaren artean beharrezko oreka gorde behar dela, sistemaren dimentsio solidarioa kaltetu gabe, eta harreman hori legez ezarri behar dela, modu argi eta egonkorrean. Beraz, ez da inolako berariazko neurririk zehazten gehieneko kotizazio-oinarrien muga kentzeko.

BAT-ETORRI CONSENSOk modu bateratuan defendatzen dituen bost puntuak hauek dira: pentsio sistema publiko baten defentsa, solidarioa eta banatzailea; pentsioen erosteko ahalmena lege bidez mantentzea; 1.080 euroko gutxieneko pentsioak; iraunkortasun-faktorea indargabetzea; eta pentsioen genero-arrakala desagerrarazteko neurriak. Ikus dezagun Toledoko Itunak zer dion bost aldarrikapen-puntu horien inguruan:

1.- Pentsio-sistema publikoa, solidarioa eta banatzailea

Toledoko Itunaren jarraipen eta ebaluazio batzordeak, 0 gomendioan, «berretsi egiten du Gizarte Segurantzaren sistema publikoa mantentzeko, hobetzeko eta egokitzeko konpromisoa; eta, bereziki, pentsio-sistema, belaunaldien arteko elkartasunean eta belaunaldi bakoitzaren baitan, eta kargen bidezko banaketan oinarritzen dena». **Gainera, sistema errotik aldatu dezaketen edonolako eraldaketen aurka dago, egungo sistemaren euskarri diren printzipioen haustura eragiten badute;** eta, bereziki, belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasunari, prestazioen nahikotasunari, kargen banaketaren ekitateari eta sistema zuzentzeko eta kudeatzeko erantzukizun publikoari buruzko printzipioei badagozkie.

2.- Pentsioen erosteko ahalmena eta horretarako lege bidezko bermea mantendu

2. gomendioan berariaz aitortzen da 2013an onartutako IRPak (% 0,25) «ez duela adostasun politiko eta sozial nahikoa».

Gomendio horrek ezartzen duenaren arabera, argi eta garbi dago, Batzordeak **pentsiodunen erosteko ahalmena mantentzearen** aldeko apustu nabaria egin duela; izan ere, pentsioak urtero KPI errearen arabera eguneratu dira, horretarako lege bidezko bermea ezarri da eta etorkizunean sistemaren gizarte- eta finantza-oreka ziurtatzeko neurriak ere hartu dira.

3.- Gutxieneko pentsioa 1.080 euro

Toledoko Itunaren Batzordeak ez du pentsioen gutxieneko zenbatekoa ezartzeko ahalmenik, baina KPItik gorako igoerak baimentzen ditu. Horren inguruan, batzordeak 2. gomendioan jasotzen du: sistemaren jasangarritasunak galdatzen duela Gizarte Segurantzaren baliabideen kargura pentsioen erosahalmenari zorrotz eusten dioten gastuak soilik finantzatzea eta **KPItik gorako igoera oro**, adibidez gutxieneko pentsioak, beste finantza-baliabide batzuen kargura ordaintzea. Bestalde, 17. gomendioan, batzordeak ohartarazi du oso **garrantzitsua dela biziraupen duina ahalbidetzen duten gutxieneko errenta nahikoak bermatzea, pentsio kontributiboetan zein ez-kontributiboetan.**

Pentsioen nahikotasunari dagokionez, 15. gomendioak, besteak beste, hauxe dio: «(...) nahikotasunak gure Konstituzioaren 10. artikuluan aipatzen den pertsonaren duintasunaren berme gisa jarduten du eta **Europako Gizarte-gutunaren protokolo gehigarrian ezarritako gutxieneko baliabide-maila ziurtatzen du.** Horregatik da garrantzitsua nahikotasun-adierazleak izatea,

erreferentzia-atalaseak mugatuz, pobreziaren aurkako borrokaren eraginkortasuna indartzeko balio baitute.

Hori dela eta, batzordeak beharrezkotzat jotzen du erreferentzia egokiren bat ezartzea (adibidez: sistemaren batezbesteko pentsioa langile okupatuaren batezbesteko soldatarekin lotzen duen ordezkapen-tasa) eta neurketa alderatua egiteko lurralde-eremu bat ezartzea (Europar Batasuneko herrialde aurreratuenak), haren bilakaeraren etengabeko jarraipena egiteko eta, desbideraketarik gertatuz gero, beharrezko neurriak hartzeko. **Horrela, lansariak duintzat jo ahal izateko Europako gizarte-guntunak formula bat ezarrita duen moduan, beharrezkoa da pentsioen nahikotasuna definituko duen helburua zehaztea».**

4.- Iraunkortasun-faktorea indargabetzea

Ez da iraunkortasun-faktoreari buruzko aipamenik egiten, eta Legebiltzarreko batzordeak ez du ildo horretan ezer gomendatu. Hala ere, batzordeak 0 gomendioan dio sistema errotik aldatu dezaketen edonolako eraldaketen aurka dagoela (eraldaketa horiek egungo sistemaren printzipioen haustura eragiten badute); bereziki, belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasunaren printzipioei eta prestazioen nahikotasun printzipioei badagozkie.

5.- Generoaren araberako pentsioen arrakalarekin amaitzeko neurriak

Batzordearen gomendioetan hainbat neurri daude generoaren araberako pentsioen arrakala desagerrarazteko.

5. gomendioan, pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko hartzen den urte kopurua (aldi iragankorra amaitzen denean, 2022an) 15 urtetik 25 urtera luzatzeak izan dezakeen eragina ebaluatu egin behar dela esaten denean, hauxe esan nahi da: **luzatze horrek pentsioen genero-arrakalan izan ditzaken ondorio negatiboak haintzat hartzeko eta arintzeko arreta berezia jarri beharko dela.**

17. gomendioan, Emakumeak eta Gizarte Segurantzaren aitorpen bat dago, eztaba daezina, gainera: emakumeak gehiengo direla pentsiorik baxuenak jasotzen dituzten artean eta, horregatik, **berdintasuneko politikek galdatzen dute berrikustea pentsio ez-kontributiboaren sistema, gutxienezko osagarriak eta alarguntza-pentsioa**, berme-atalase unibertuala, nahikoa eta duina progresiboki bermatzeko.

Gainera, **neurri estrukturalak** gomendatu dituzte lan-eremuan benetako berdintasun bermatzeko; zaintzaren gaiari heltzeko; ordainsari-berdintasuna lortzeko, funtsezkoa baita pentsioak parekatzeko orduan; kotizazio-hutsuneak betetzeko, eta, ondorioz, etxeko lanak edo nahi ez diren lanaldi partzialeko lanak azaleratuko dira, jakina den moduan, horiek emakumeei eragiten diete nagusiki.

Ondorio gisa, oro har, gomendioak modu positiboan baloratzen ditugu, akordio horrek ziurtasuna ematen baitigu egungo eta etorkizuneko pentsiodunei. Lehenik eta behin, belaunaldien arteko banaketa-ereduan eta eredu solidarioan oinarritutako pentsio-sistema publiko baten aldeko apustua egiten duela. Bigarrenik, esan beharra dago, akordioak lortu duen babes zabalari balioa eman behar zaiola, baita ekonomiaren aurretik politika jarri izanari ere; eta, hori abiapuntu egokia da gaurko eta etorkizuneko pentsioak bermatu ahal izateko. Bestalde, sistemaren iraunkortasuna berariaz aipatzen du; eta, pentsio-kontributiboak nagusiki kotizazioen bidez eta, kotizazioak iristen ez direnean, zergen bidez, finantzatzeko diren ideia indartu du.

Gizarte Segurantzaren eta 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrak

Pentsio publikoei dagokienez, 2021erako aurrekontu orokorren kontuetan jardueraren ildo nagusi batzuk jasotzen dira, Toledoko Itunaren gomendioei jarraituz. Horien artean, pentsioen inguruko hauek nabarmentzen dira: **pentsioen erosteko ahalmena mantentzea eta ez dagozkion gastuen zati handi bat bere gain hartzea.**

Pentsio publikoen eguneratzeari dagokionez, pentsio kontributiboak % 0,9 igoko dira aurrekontuetan (2021erako aurreikusitako inflazioa) eta inflazioa % 0,9tik gora haziz gero erosteko ahalmena mantentzeko bermea jasota dago. Pentsio ez-kontributiboak eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera % 1,8 igoko dira.

Gainera, Toledoko Itunaren **lehenengo eta seigarren gomendioei jarraituz**, ez dagozkion gastu gisa identifikatutako 23.000 milioi euroetatik, 2021eko kontuetan aurrerapauso handia emango dute eta 14.000 milioi euro inguru estaliko dituzte.

Harrigarria da gutxieneko pentsioen erosteko ahalmena ez hobetzea, batez ere kontuan hartzen badugu Gobernu programak, pentsioen inguruan, hitzez hitz esaten duela: «Pentsioak lege bidez eguneratuko ditugu, modu iraunkorren, KPI errearen arabera, eta gutxieneko pentsioen **eta pentsio ez-kontributiboaren erosteko ahalmena handituko dugu**». Albiste txarra da pentsiodunontzat, mobilizazioetan gutxieneko pentsioen erosteko ahalmena hobetzeko eskatu izan dugulako, pobreziaren mugatik behera pentsiorik egon ez dadin, eta pentsio horiek, berandu baino lehen, LGSrekin parekatzeko helburuarekin. Bestalde, gutxieneko pentsioen erosteko ahalmenaren hobekuntza tresna handia da generoaren arabera pentsioen arrakala murrizteko, kontuan hartzen badugu emakumeek jasotzen dituztela gutxienekorako osagarri gehienak.

Gure ustez, **harrigarria da, halaber, jasangarritasun-faktoreari inolako iruzkinik egin ez izana**, gaur egun ez dago indarrean, etenda dago 2023ko urtarrilaren 1era arte. Baina, araua berrikusi ezean, data hori iristean indarrean sartuko da.

Amaitzeko, **pentsiodunen mobilizazioei balioa eman behar zaie**; izan ere, azken urteotan egindako manifestazioetan izandako babes handiari esker, **pentsioak alderdien eta erakunde publikoen agenda politikoaren parte izatea lortu dugu**. Horregatik, dugu gaur, akordio berria Toledoko Itunean; eta, horregatik, lortu dugu Estatuko Aurrekontu Orokorrek pentsioen erosteko ahalmena bermatzea.

Orain, aldarrikapenekin jarraitu behar dugu pentsioak erreformatzeko lege-proiektuek eta Estatuko Aurrekontu Orokorrek Toledoko Itunaren gomendioak kontuan hartu eta bere egin ditzaten. Eta, hemendik hasi daitezten: gutxieneko pentsioen erosteko ahalmena hobetzen eta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzen eta iraunkortasun faktorea indargabetzen.

2020ko azaroaren 19a

OHARRA: BAT-ETORRI CONSENSO osatzen duten pentsiodunen elkarteek hauek dira: AGIJUPENS, Nagusilan, FEVAAS (Euskal Elkarten Fed.), GEPE (Gipuzkoako erretiratu edo pentsionisten elkartea), ASPALGI, HELDUAK ADI eta PENTSIODUNEN SAREA. Baita COESPE Gipuzkoa eta Gipuzkoako Tokiko eta Eskualdeko Batzarretako ordezkariak ere. Era berean, Arabako Tologorri Elkarteak eta Lasarte-Oriako pentsiodunen eta erretiratuen Koordinakundeak ere bat egiten dute ekimenarekin